

2024ko ABUZTUA

# BERMEON ZER?

Abuztuaren 6tik 9ra

## **Bermeoko XXXIX. Nazioarteko Musika Astea**

Abuztuak 10

## **Nazioarteko Folklore jaialdia**

Abuztuak 12

## **1912ko galarrenaren urteurrena**

# BERMEOKO TABAKO KONTSUMOAREN EGOERA -GALDETEGIKO DATUAK-

## PARTE-HARTZAILEAK

174

99



73




2

Beste bat


## ADIN TARTEA

- 25-34 urte: %23,7
- 35-49 urte: %29,9
- 50-64 urte: %24,7


## ERRETZAILEA ZARA?



## ERRETZEARI UTZI NAHIKO ZENIOKE?



## KONTSUMO MOTA



## TABAKOA BAPERRA BAINO ARRISKUTSUAGOA DA?



## NON EGON BEHARKO LUKE DEBEKATUTA ERRETZEA?



## 02 Barikua Lameran




Martillo kainen  
12:30-14:30  
eta 16:30-18:30

### EKITALDIA

## LIBURU AZOKAREN INAUGURAZINOA

Abuztuaren 11ra arte  
11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Antolatzailea: **Euskadiko Liburu Ganbara**  
Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



### PUZGARRIAK

## URETAKO PUZGARRIAK

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**  
Laguntzailea: **Rural Kutxa**



## 03 Zapatuaç Lameran

### JAIA

## SENEGALGO JAIA

**10:30.** umeen jolasak eta Afrikako material-salmenta.

**14:00.** Bazkari senegaldar herrikoia (tiketak salgai 5€-an)

**15:00.** Senegaleko borroka erakusketa (entseguak uztailak 21, 25 eta 28an)

**18:30.** Sabar dantza, Senegaleko dantza tradizionala.

**21:30.** Radio Guerrilla taldea.

Egun osoan txosna egongo da.

Lameran (euria balitz, San Frantzisko

Herri ikastetxeko aterpean)

## 04 Domeka Itxasgane futbol-zelaian 12:00etan

## Futbol partidua Bermeoko Senegaldarrak Argentinaren aurka.

Antolatzailea: **NDAD WI Senegal Elkarte**  
Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



**05** **Astelehena**  
San Frantzisko  
eleizan  
20:00etan

**MUSIKA**  
**URDAIBAICO**  
**ORGANOAK 2024**  
Alessandro Bianchi (organoa)

Antolatzaileak: **Urremendi Landa**  
**Garapena eta Bermeoko Udala**



**06** **Martitzena**  
Santa Maria  
eleizan  
20:00etan

**BERMEOKO XXXIX.**  
**NAZIOARTEKO MUSIKA ASTEA**

**ZARUK**

Iris Azquinezar (biolontxelo) eta  
Rainer Sieferth (gitarra)

Programa: Agua diskoa

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**  
**Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea**



**07** **Eguaztena**  
Santa Maria  
eleizan  
20:00etan

**BERMEOKO XXXIX. NAZIOARTEKO MUSIKA ASTEA**

**DUO DOLMEN**

Eider Garcia de la Torre Aurrekoetxea (klarinetea)  
eta Ibon Ariznabarreta Barriga (flauta)

Programa: H. Villa-Lobos, R. Muczynski, A. Jolivet, P. Poulteau,  
J. Reynolds eta E. Bozza.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**  
**Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea**



**08** **Eguena**  
Santa Maria  
eleizan  
20:00etan

**BERMEOKO XXXIX. NAZIOARTEKO MUSIKA ASTEA**

**IBAI PIJOAN**  
& **GUS McQUADE**  
(Txeloa eta gitarra)

Programa: B. Strayhorn, J.S. Bach, J. Dowland, M. Ravel, F. Mompou,  
P.I. Tchaikovsky, G. Donizetti, A. C. Jobim eta J. McHugh.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**  
**Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea**



**09** Barikua  
Santa Maria  
eleizan  
20:00etan



## BERMEOKO XXXIX. NAZIOARTEKO MUSIKA ASTEA

### BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Itsasne Alzola, Biolin bakarlaria  
Jorge Yagüe, zuzendaria

Programa: Mozart eta Dvorak.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

**Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea**

**10** Zapateria  
Artza frontoian  
21:00etan



## EKITALDIA

### NAZINOARTEKO XXXVI. FOLKLORE JAIALDIA

- Grupo Etnográfico Terras de Cambra (Portugal)
- El Shams Ballet Group (Egipto)
- Alkartasuna Dantza Taldea (Bermeo)

Ateak 20:30ean zabalduko dira.

Sarrerea: 5 €, frontoiko takilan 18:00etatik aurrera

Antolatzailea: **Alkartasuna Dantza Taldea**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

**Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea**

**12** Astelehena



## EKITALDIA

### 1912KO GALARRENAREN URTEURRENA OLATU KAIAN

**19:30ean.** kontzertu akustikoa.

**20:30ean.** Itsasontzietara jaitsiera.

**21:00etan.** Kankinkabara txistu taldeagaz prozesioa.

**21:30ean.** Lore eskaintza.

Antolatzailea: **Galerna belaontzi elkarte**

Goiko plazan  
20:00etan



## KANTAJIRA

Galernaren urteurrena ospatzeko, kalerik kale ibiliko dira kantuan. Goiko plazan hasi, gero Torronterora, eta ondoren portu aldera egingo dabe. Kantuzalea bazara, eztarria berotu eta oinak arindu. Oraingoan, kanta eta dantza egingo dabe, tragediaren urteurrenean esperantzaren alaitasuna jarrita. Lagunei deitu eta erdu gugaz arratsalde ezberdin bat pasatzera. Ez zara damutuko!

Kantatzen duen herria, bizirik dagoen herria da!

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**

16 Barikua



JAIA

## SAN ROKE EGUNA

**12:00etan:** KANKINKABARA txistu taldearen kalejira

**17:00etan:** ARREKATXUTXA Txikitixa taldearen kalejira

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

29 Eguena



JAIA

## SAN JUAN DEGOILATU EGUNA

**Goizeko 10:00etan** Udalbatza Goiko plazan batuko da Bermeoko txistulariakaz.

Ibilbidea: Nardiz tar Jon, Arresi eta Sanjuanportale, handik Gaztelugatxera joateko.

Udalbatzak Gaztelugatxe Bermeorena dala berretsiko dau urtero lez.

Mezak egongo dira Gaztelugatxeko San Juanen.

29 Eguena  
30 Barikua  
Arrantzaleen  
Museoan

IKASTAROA

## UDAKO IKASTAROA

“Literatura eta nazioa.  
Nazioa eta Literatura”

Gure euskal historia kulturalari buruzko dibulgazio-ikastaroa da. Ikastaro hau doakoa izango da eta interesa daukien guztientzat zabalik egongo da, eta euskeraz egingo da.

Izena emon behar da:  
laidataldea@gmail.com

Antolatzaileak: **Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia**



# IZARRAKO JAIAK

## 28 Eguaztena

**19:45.** Xixilitxikiri harrera txistularien laguntzarekin, Izarra enparantzatik

**20:00.** Pregoia eta jaien hasierako txupinazoa Jarraian. Jaitsiera, Izarrako frontoitik Kix-Kix ileapandegiraino  
\*Ibilbidea: Izarrako frontoia - Izarra enparantza - Atalde - Intxausti - Kix-kix ile-apaindegia

**20:40.** Xixilitxikirekin argazkiak ateratzeko aukera, photocall eta musika, Kix-Kix ileapaindegian

## 29 Eguena

**11:30.** Erraldioen topaketaren irteera

Partaideak: KIETB (Bermeo) eta Etxano, Sorginlarren Txontxongilo taldearekin batera

\*Ibilbidea: Izarrako frontoia - Aritzatxu Bidea - Dolariaga - Merkatua - Erremedio - Aldatzeta - Nardiz Tar Jon - Goiko Plaza

**13:00.** Musika ibiltaria, Intxausti eta Atalde kaleetatik

**18:00.** Buruarinen tailerra. (20 pertsona. Adin txikikoak, arduradun bategaz egin beharko dute tailerra)

**18:30.** Erraldioen tailerrak eta aurpegi-margoketa

**19:30.** Buruhandiak, Izarra enparantzan eta frontoian  
Partaideak: KIETB (Bermeo) eta El Castillar (Baños de Rioja)

## 30 Barikua

**12:30.** Ur globoen gerra eta bitsa

**18:00.** Motx pailazoaren ikuskizuna

Ondoren. Txokolatada. \*Bakoitzak bere edalontzia eroatea eskatzen dute.

**19:30.** Diskofesta, Izarrako frontoian

**20:30.** Urezko unikornioa eta entzierro txikia

Ondoren. Jaien amaiera. Xixilitxikirekin doluzko ibilbidea, ohorezko aureskua eta Xixilitxikiri agurra.

Antolatzailea: **KIETB**

Laguntzaileak: **Bermeoko Udala eta AEK**

# KZ GUNEA

## AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Irailaren 3tik 12ra: 11:00-13:00. "Smarthponeak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi" (gaztelaniaz). 14 ordu.

## IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Irailaren 2an: 11:00-13:00

Irailaren 13an: 09:00-11:00

Irailaren 24an: 14:00-16:00/16:00-18:00

Zubiar tar Kepa 26-28 · 1. solairuan (udal-azokan)

Tel.: 944033325 · [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) · [tutor.bermeo@kzgunea.net](mailto:tutor.bermeo@kzgunea.net)

# Bermeoko Haurreskola

## 2024-2025 ikasturterako izena emoteko epea irailaren 1etik 10era arte.

0 eta 2 urte bitarteko haur-eskola publikoak doakoak izango dira guztientzat (2023-2024ean jaiotakoak)

Informazio gehiago: [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) edo haur-eskolan bertan

(Benito Barrueta Margolaria z/g - 94-688 05 63)





# ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIAK 2024

## JAIETAKO LEHIAKETAREN KARTEL IRABAZLEA

Izena: 'Collagea Jaiak'

Egilea: Susana Calo Boira

## PREGOIA

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiei hasiera emoteko ekitaldia berezia da danontzat. laz hasitako bidea jarraituta, aurten ere, danon artean erabaki gura dogu nor edo nortzuk egongo diren udaletxeko balkoian alkateagaz batera pregoia emoten.

Finalisten artean herritarrek bozkatzeko aukera daukate abuztuaren 1etik 9ra, zabalduko den galdetegiaren bitartez, edo Gizarte eta Kultura Etxean jarriko den kutxan.

## JAIETAKO LIBURUA

Jaietako liburuaren salmenta, irailaren 2tik aurrera Gizarte eta Kultura etxean eta Turismo bulegoan.



# KONTUZ!

## ADI zarata



Udan, eguraldi onagaz, hondartzak (Aritzatxu eta Tonpoi eta Talape), zona berdeak (Tala, Almika) eta portua (Martillo ingurua) eta gure espazio publikoak asko erabiltzen doguz. Eta pertsonok asko eta ezberdinak garenez, kontuz ibili eta errespetuz jokatea tokatzen jaku, norberaren gustoko musika inori inposatu barik.

Adi gero musikagaz, anplifikatzaileak edo/eta bozgorailuak ezin diralako erabili espazio publikoetan. Adibidez, pertsona, elkarte, edo tabernaren batek musika edo zarata handia egitekotan (egun berezi batean, adibidez), beti egin behar dau eskaria -aldez aurretik- Bermeoko Udalean, han aztertzeko berau eskaria bidezkoa dan edo ez. Horretarako, BERHAZ-en Ertzilla kalean dagoen Bermeoko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua dago (edo Internetetik, Udal Webguneko erregistrotik egin daiteke eskaria).



## ADI zaborra



Udan, zaborrak kalean, edukiontzietatik kanpo uzteak, arriskua dakar, batez ere, itsastxoriak erakartzen dauzelako jendea dagoen lekuetara eta inguru guztia degradatzen da horrela. Adi mesedez, edukiontzia beteta ikusiz gero, ez bota zure zaborra edonon. Espazio publikoak garbi mantendu nahi izanez gero, ez bota zikinik lurrera. Eta erretzailea bazara, zigarro-puntak oso kutsatzaileak direla gogoratu.



# EMAKUME KORRIKALARI TALDEA

Irailak 21

Lasterketa teknika

Urriak 21

Saio aerobikoa

Urriak 26

Indar saioa kalean

Azaroak 16

HIIT saioa

Abenduak 14

Indar Lana TRX-arekin

Urtarrilak 11

Bermeoko HERRI  
LASTERKETAKO ibilbidea

**EZ ZARA LORTZEN DUZUNA,  
GAINDITZEN DUZUNA BAIZIK**

Urtarrilak 26

Bermeoko  
HERRI LASTERKETA



Laguntzailea:



kutxabank



# ERAKUSKETAK

## Frantziskotarren Klaustroan JOSE ANGEL LASA “-N,-Z, -KIN, -RANTZ”

Eskulturen erakusketa.  
Ordutegia: barikuak 18:00-20:00  
zapatuak 12:00-14:00 eta  
18:00-20:00  
domekak 12:00-14:00  
Bisita bereziak egiteko:  
abengoa9@gmail.com  
605 71 64 62. Urrira arte.



## Santa Eufemia eleizan

### UNAI MANGAS “SANTU MARGOEN ERAKUSKETA”

Pintura-erakusketa.  
Abuztuaren 1etik 17ra arte  
Astegunak: 11:00-13:00  
Zapatuak:  
11:00-13:00 eta 16:00-18:00  
Domekak: Meza ostean 14:00ak arte.  
Abuztuaren 17an, sorpresa bat egongo da.



## Berhaz Bulegoan BERHAZ BULEGOKO XLI. ERAKUSKETEAK

Maite Anduiza MAI “KOLOREAK BAI edo EZ”  
Mihise ganeko akrilikoak. Formatu ezberdinak.  
mtanduiza@gmail.com  
Facebook: MaiAnduiza  
Instagram: mai\_pinturitas  
Udako ordutegia:  
Astelehenetik barikura  
08:00 - 14:30



## Lameran Liburu Azoka

Abuztuaren 2tik 11ra  
11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik  
21:00etara  
Antolatzailea: Euskadiko Liburu Ganbara  
Laguntzailea: Bermeoko Udala

## Arrantzaleen Museoa

Museoko ordutegia:  
Martitzenetik zapatara: 10:00 – 19:00  
Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30  
Astelehenetan itxita.

### “Portu Zaharra”

Portuaren eta bertako jendearen bilakaera kameren ikuspuntutik, toki guztietako argazkilariek erretratatu dabe Bermeoko portua, 1877tik gaur egunera arte, eta gaur egun, barriro be, Bermeoko bizi erdigune bihurtu da.  
“Portu Zaharra” erakusketak Iñaki Markaidaren bilketa, hobekuntza digitala eta lanak biltzen dauz Bermeo eta bertoko biztanleak bere azken 150 urteko historian.



### “Galernak”

Abuztuaren 9tik aurrera  
Gure Kantauri itsaso zakarrean izandako galarren kopurua amaibakoa da.  
“Gloriako larunbateko galarrena” 320 arrantzale desagertu zirana, “Santa Klara gaueko galarrena” Bermeoko 116 marinel hil ebazana.  
Baina zer da Galarrena? Zelako eragina izan eban gure kostaldean?  
Abuztuaren 9tik Arrantzaleen Museoa Galernari buruzko gune barria ikusgai.  
Tel. 946881171/ helbide elektronikoa:  
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus  
www.bizkaikoa.bizkaia.eus  
Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa

# GIZ

## ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO AHOIKULARITZA ZERBITZUA:

Familiatzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua da. Doakoa eta isilpekoa.

- Noiz: astero: martitzen, eguazten eta eguenetan.
- Ordutegia: 08:30-14:30
- Non: Kultur Etxean, 1. solairuan, gazte ekimenak gelan.
- 675025018/bermeoprebentzioa@etorkintza.org



## BEGIRALE IKASTAROA

- Datorren ikasturtera begira, aisialdiko begiralea izateko ikastaroa antolatuko du Bermeoko Udalak.
- Eusko Jaurlaritzak homologatuta.
- Urriaren 18tik aurrera egingo da ikastaroa.
- Atal praktikoa eta teorikoa eukiko dauz.
- Izena emoteko epea abuztuaren 26an hasiko da. Plaza kopurua mugatua da.



## IKASKETA GELA

Gizarte eta Kultura Etxean  
(Ludotekan)

09:00etatik 14:00etara eta  
15:00etatik 20:00etara


LUDOTEKA



# EUS- KERA

## ANTZERKI TAILERRAK

- 17 urtetik gora
- Astean behin, ordu bi, Gizarte eta Kultura Etxean
- Izena emoteko: irailaren 1etik 30era, Berhaz bulegoan



## IRAKURLEEN TXOKOA

- Hilean behin, ordu bi, udal-liburutegian
- Izena emoteko: irailaren 1etik 30era, udal-liburutegian

Umeen antzerki-tailerra eta Irakurleen Txoko Feminista be egongo dira!

Informazio gehiago:  
[www.bermeo-euskaraz.eus](http://www.bermeo-euskaraz.eus)  
94-617 91 22



**BERMEO**

**72,36€**

EMAN IZENA  
Matriculate



**HIZKUNTZA  
ESKOLA  
OFIZIALA**  
Escuela Oficial de Idiomas

Ziurtagiri Ofiziala · Certificación Oficial

English · Euskara · Français

Matrikula zabalik 2024ko irailaren 2tik aurrera

**English**

(A1, A2, B1, B2.1, B2.2, C1)

**Euskara**

(B1, B2.1, B2.2, C1)

**Français**

(A1, A2, B1, B2.1, C1)



Telefona: 946 187 091  
[www.eoibermeohe.vezkuntza.net](http://www.eoibermeohe.vezkuntza.net)





## Iraila-Urrian...

- Bermeoko Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak
- Zinea
- Antzerkiak
- San Migel auzoko jaiak

**Jarri hemen zure publizitatea**

Prezioa: 250 €

**94 617 91 57**

**kultura@bermeo.eus**

[www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

